

# QUMRAN'GO SALMUAK

## XXI SALMUA

### (euskerazko 3'garrena)

*6-10'garren ataltxoak seksu-arriskuai dagokiez.*

1. Gaztea nintzan ni uts egin baiño leen, eta uts ori gura izaten asi nintzan.
2. Bere edertasun guztiaz etorri yatan eta aren sakoneraiño arakatu neban.
3. Lorea zimelduarren be, maatsa eltzen danean, onek poztu egiten dau biotza.
4. Nire oiñak gozotasunean sendotu ziran, neure gaztarotik azagutu neban-eta.
5. Zabaldu egin neban nire belarria eta aundia be aundia izan zan nik artu neban irabazia.
6. Zori ona izan zan niretzat. Nire indarra neure irakasleari emon neutsan.
7. Alaia izateko asmoa artu neban, atsegiñean gartsua izan nintzan eta ez neban nire asmoa izten;
8. Orregaitik, sutu egin neban nire burua eta ez neban nire aurpegia aldendu.
9. Orregaitik, astindu egin neban nire burua eta ez neban goietan kolokarik egin.
10. Nire eskua zabaldu eta beronen ezerezari begira egon nintzan, garbitu egin neban esku-azpiak.

KEREXETA

# QUMRAN'GO SALMUAK

## XXII SALMUA

### (euskerazko 4'garrena)

*Sion, Jerusalem be ba-da, eta aren ondasunak Mesias'en ondasunen irudi da.*

1 Zure mesedeak bere aldian (...)

1b Neure indar guztiaz bedeinkatzeko ekarten zaitut gogora, Sion.

2 Nik maite izan zaitut. Bakea etorri bedi.

3 Zure salbamenaren usteak (...). Gizaldiak eta gizaldiak bizi izango dira zuegan. Jaungoikozaleen gizaldiak.

4 Zeure edertasuna izango dira: zure salbamenaren eguna biotzez gura daben guztiak, osotasunaren aintza ugarian be poztu egingo dira.

5 Zeure aintzatik janarituko dira. Zure plazetan saltoka jardungo dabe. Ekarri egizuz gogora zure profeten maiteasarrak, 6 eta zeure Jainkozaileen egintzetan izango zara goratua. Baztatu egizu indarkeria zure erditik. 7 Zearo kenduak izan beitez zuegan maltzurkeria ta zuzenbakekeria.

Poztu egingo dira zure semeak zure barruan. Zure maiteak zeuri lotuta egongo dira. 8 Zure aukeratuak bai itxaron dabela zure salbamenal; (zure aukeratuak) bai egin dabela dolu zuegan!

Ez bedi galdu, Sion, zure itxaropena, 9 ezta zure iraupena erantzun bagarik geratu be.

Zein zintzo galdu da iñoiz, 10 eta nor urten da onik iñoiz bere zuzenbakekeritan?

Gizona beronen bidearen arauz izaten da aztertua. Bakotxari bere egintzen negurrira emoten yako ordaiña.

Zu inguratzen zenduezan arerioak, Sion, ondatuak izan ziran. Zure etsaiak sakabanatuak izan ziran.

Atsegingarri yako (Jaungoikoari) zuegan datorren gorapena, Sion!

12 Mundi guztira zabaltzen da. Askotan dakart gogora (Jaungoikoa), zeu bedeinkatzeko. Biotz-biotzez bedeinkatuko zaitut!

13 Zuzentasun betikoa jadesi daikezu zuegan, baita santuen bedeinkapena artu be.

14 Artu egizu zuegan esan zana: profetak agertu ebezan amesak. Jagi, zabaldu zaituzte, Sion!

15 Goratu egizu zure Gorengoa, zure Salbatzaillea. Nire arimea poztu egingo da zuegan aintzan.

KEREXETA